

Hitza hil nahi digute

Deia, 1977-06-12.

Hitzak egin du gizona, gizon.

Mundu hontan bizi diren izakietatik, gizona bakarra da hitza duena, eta Humboldt-ek esan zuen bezala, gizona gizon bada, hitzaren bitartez da gizon.

Hitzik gabe, gizona ez da pentsatzeko gauza. Piztia instintu hutsaren eraginez dabilen bezala, gizonak pentsabidez behar luke ibili; gizona susmo bidez abiatzen den bezain laster pizti bihurtzen baita.

Hara, lekuko, nazismoa, faszismoa, frankismoa, Mackartismoa eta komunismoa.

Gure herria aspaldi dago Hitz honen eske: euskalduna eta askea. Hitza, badu Euskal Herriak herri bezala berea.

Lehendabizi, beste norbaiten hitz bidez ito nahi izan duten euskalduna; gero, harma bidez pikatu zioten mingaina; hala ere, euskaldunak gorde du hitzaren arima nonbait, eta gauza da berriz euskaldunaren ahotan izateko.

Baina hitz hau euskaraz esatea ez da aski; gizonarentzat hitz askea nahi dugu esan euskaldunok.

Giza eskubideak, munduak eta inguruko batzuk aitortzen dute, gure gizonaren hitza esateko eskubide hau, baina mingain erdiarekin hizketan hasi garen bezain laster jarri zaizkio hango eta hemengo betiko zentsuratzailleak eta inkisidorekumeak betiko guraizeekin, arkatz gorri edo beltzarekin, ageriko eta ezkutuko mehatxuek botatzen.

Ez da kanpokoek bidea bakarrik, etxean ere baditugu honelako koldarrak.

Orain, eta hau kanpokoek noski, bonba bat jarri diote Hitz honi Loiolan.

Gure herriko mingain zauritu hau zerbait esan nahiean hasi den bezain laster hasi zaizkiote tiroka: jaiki dira Millan Astrai elbarriak. Eta hil nahi diguten gure Hitz oso hau behar dugu defendatu.